Debegesa

Debegesa

Debabarreneko Garapen Agentzia

# Debabarreneko Plan Estrategikoa 2023-2030

Plan estrategiko hau Debegesak eta Zabala Innovation  aholkularitzak idatzi dute elkarlanean eta herritarren partaidetzara zabaldu da, eskualdean erreferente diren pertsona, entitate eta erakundeen ekarpenak jaso ditu eta Debegesako Administrazio Kontseiluak onartu du 2023ko maiatzaren 22an.

# Hitzaurrea

2022aren amaieran eta 2023aren hasieran, Debegesako Administrazio Kontseiluak, hainbat gizarte-eragilerekin eta Debabarreneko herritarren parte-hartzearekin, eskualdeko Plan Estrategikoaren berrikuspenari ekin zion. Azken urteotako Lurraldeko egoera sozial, politiko, ekonomiko eta sanitarioaren aldakortasunaren ondorioz, inoiz baino beharrezkotzat jo da ibilbide-orria eguneratzea. Ziurgabetasunaren aurrean, eskualdeko helburuak eta estrategiak argi eta garbi definitzea izango da erakundearen norabidea zehazteko modurik eraginkorrena.

Aldi berean, EBk jarduera-esparru bat diseinatu du herrialde kideen ekonomia jasangarria dinamizatzeko, finantzaketa- eta kudeaketa-tresna berrien bidez gauzatzen dena: NEXT funtsak. Funts horiek aukera ematen diete udalei, enpresei eta, oro har, gizarteari gutxi garatutako eremuetan aurrera egiteko (energia jasangarrian, hiri-birsorkuntzan, etxebizitzen birgaitzean), eta estrategia eta testuinguru berrietan aukerak sortzen dituzte, betiere Garapen Jasangarrien Helburuekin lotuta.

Berrikuspenari ekiteko orduan, hasierako premisa izan zen plan berriak Debabarreneko etorkizunerako estrategiak ezarriko behar zituela, 2030erako eskualdearen ikuspegia jasoz eta bide horretatik egin da lan. Gainera, erakundeekin lankidetzan Ekintza Planera hurbildu behar zuen, betiere udalen eta eskualdeko Agentziaren lan-eremuak kontuan hartuz, eta herritarrek planteatzen dituzten helburuekin koherenteak diren garapen-eremu berriak proposatuz. Beraz, gutxienez hiri birgaitzea eta berroneratzea, enplegua, berdintasuna, industria-garapena, berrikuntza, ekintzailetza, garapen jasangarria, energia, turismoa eta gizarte-esparrua lantzeko beharrak landu behar zituen. Hala ere, aurrekoarekin batera, Debegesako Administrazio Kontseiluak uste izan du hiriaren berrindustrializaziok eta berroneratzeak mentzio berezi bat merezi zuela eta ikuspegi horrekin gauzatu da garatutako plana.

Aldi berean, plana honek Garapen Agentziaren beraren gobernantza-eredua hobetzeko eta finkatzeko funtsezko elementua izan beharko da, hura martxan jartzean erakunde publikoak eta pribatuak inplikatuz eta herritarren parte-hartzea sustatuz.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu plan hau idazteko prozesuan parte hartu duten pertsonei. Plan horrek herritarren parte hartzea izan du helburu, eta eskualdeko pertsona,

enpresa eta erreferentziazko erakundeen ekarpenak ere jasotzen ditu. Ezagutza eta ikuspegi berritzailea ekarri dioten hainbat alorretako pertsonen partehartzea ezinbestekoa izan da Debabarreneko Plan Estrategiko 2023-2030 hau idazteko.

Juan Ángel Balbás

Debegesako Zuzendari Nagusia

Debegesa

# Aurkibidea


1. Estrategiaren kontzeptualizazioa .... 8
   1. Ikuspegi eraldatzailea .... 9
   2. Dimentsio eraldatzaileak .... 10
   4. Helburu eraldatzaileak .... 16
   5. Helburu eraldatzaileak Garapen Jasangarriko helburuekin (GJH) lerrokatuta .... 17

2. Debabarrena Eraldatzeko Plana 2030 .... 19

HE1 Debabarrena industria distritua- Basque Precision Technology District .... 20
- LE 1.1 Eskualdeko eta enpresetako lehiakortasuna sustatzea .... 21
- LE 1.2 Industria-sektorearen digitalizazioa .... 21
- LE 1.3 Industria-sektorearen trantsizio ekologikoan laguntzea .... 22
- LE 1.4 Enpresak aukera-sektoreetara erakartzeko estrategia .... 22
- LE 1.5 Inbertsio “adimendunak” erakartzeko eta garatzeko plana .... 23
- LE 1.6 Lurzoruaren eta azpiegituren eskaintza hobetzea jarduera ekonomikorako .... 23

HE2 Debabarrena, Barruti ekintzaile eta berritzailea .... 25
- LE 2.1 Hub BPTD .... 26
- LE 2.2 BPTD industria-ekintzailetzako programa .... 26
- LE 2.3 Ekintzailetza-eta berrikuntza-guneak .... 27
- LE 2.4 Lehen sektorea suspertzeko programa .... 27

HE3 Debabarrena, birgaitze eta berroneratze integrala birsortze eredua .... 29
- LE 3.1 Debabarreneko hiri-birgaitze iraunkor eta integraturantz .... 30
- LE 3.2 Industria-erabilera zaharreko eraikinen birgaitze eredugarrirako ekimen pilotua .... 30
- LE 3.3 Eraikuntza/birgaitze iraunkorreko prestakuntza-zentro dual berria .... 31
- LE 3.4 Turismo sektorea sustatzea, erakargarritasuna sustatzen duten jarduerak eta zerbitzuak garatuz. .... 31

HE4 Debabarrena berdez mugitzen da! Euskadiko mugikortasun iraunkorreko lehen hiriarteko sarea .... 32
- LE 4.1 Bidegorri sarearen errefortzua .... 33
- LE 4.2 Garraio publikoa sustatzea .... 33
- LE4.3 Ingurumena hobetzeko ekintzen garapenean herritarrak arduradun bihurtzea .... 34

HE5 Debabarrena natura (Deba ibaia, lurraldearen ardatz egituratzailea) .... 35
- LE 5.1 Ibaiaren ondoko espazioak berreskuratzea .... 36
- LE 5.2 Deba ibaiari eta bere inguruari buruzko sentsibilizazioa sustatzea .... 36

HE6 Debabarrena, energia-eredu jasangarria ... 37
LE 6.1 Energia berriztagarria sortzea ... 38
LE 6.2 Herritarren parte-hartzea eskualdeko energia-trantsizioan ... 38
HE7 Debabarrena, sormen eskualdea ... 39
LE 7.1 Debabarrena KSI estrategiaren diseinua ... 40
HE8 Debabarrena, zahartze aktibo eta osasungarria ... 41
LE 8.1 Zahartze aktibo eta osasungarrirako eskualdeko plana diseinatzea ... 42
LE 8.2 Zahartze aktibo eta osasungarriko proiektuak ... 42
LE 8.3 “Erretiratuen egoitzatik” “Adinekoen gizarte-zentrora” ... 43
LE 8.4 Bitartekaritza-zerbitzua abian jartzea ... 43
LE 8.5 Adinberrirekin lotura ... 43
HE9 “4. metropoli espazioa” marka eraikuntza ... 44
LE 9.1 Debabarrena 4. Metropoli Eremu gisa posizionatzeko estrategia diseinatzea eta gauzatzea ... 45
HE10 Debabarrena Talent ... 46
LE 10.1 Talentua sortzea ... 47
LE 10.2 Talentua atxikitzea eta erakartzea ... 48
ERANSKINAK ... 49
1.PLAN ESTRATEGIKOAREN GOBERNANTZA EREDUA ... 50
2.LERRO ESTRATEGIKOAK, GJH ETA LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE ACTUACIÓN Y ODSs ... 52

# Sarrera

Egoeraren diagnostikoa eta partaidetza prozesuan parte hartu duten eragileekin izandako saioak oinarri hartuta, plan estrategikoaren elementu nagusien proposamena egin da.

Elementu horiek jarraian azaltzen den eskemaren arabera aurkeztuko dira: 4 dimentsio eraldatzailetan oinarritutako eskualde-ikuspegia helburu estrategikoz osatua; horiek, aldi berean, 10 proiektu eraldatzailetan irudikatzen dira, bakoitzak bere ekintza konkretuen bidez garatuko dira.

# 1. Estrategiaren kontzeptualizazioa

# 1. Ikuspegi eraldatzailea

Aurreko Planaren denbora-irismena amaituta, Debegesak hausnarketa-prozesu bati ekin dio, **Debabarreneko Plan Estrategiko berria garatzeko, 2030. urtera begira**, inguruko erronkei eta hamarkada honetako aldaketa handiei aurre egiteko asmoz. Ondoren, 2030eko Plan Estrategiko berriaren oinarri izango diren ikuspegi- eta balio-proposamenak aurkezten dira.

## 2030 IKUSPEGIA

- Debabarreneko eskualdeak Euskadiko 4. metropoli-espazioa izan nahi du.
- Industria- eta berrikuntza-ekosistema sendoa, eta ezagutza sortzea, ekintzaile sendo batekin batera.
- Eredu ekonomiko berritzaile eta jasangarria.
- Hiri-, bizitegi- eta ekonomia-jardueren inguruneak eta azpiegiturak leheneratzea.
- Bizi eta lan egiteko eskualde eta hiri eremu erakargarria sortzea.
- Kohesioa eta gizarteratzea ezaugarri dituen eskualde-nortasun partekatua duen lurraldearen pertenentzia-sentimendua eraikitzea.

## 2030 BALIOAK

- Eskualdeko eragile eta udalerri guztien arteko lankidetza.
- Profesionaltasuna eta ekimena, enpresa-sarearen garapena identifikatzeko ezaugarri gisa.
- Kalitateko enplegua eta aukera-berdintasuna sustatzea.
- Berrikuntza eta sormena, aurrerapen ekonomiko eta sozialaren eragile gisa.
- Zuzentasuna, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa, eskualdeko jardueren zeharkako elementu eta eragile gisa.
- Herritarrekiko eskualde irekia eta parte-hartzailea.
- Talentua sortzeko, erakartzeko eta atxikitzeko konpromisoa.
- Gobernu on eta gardena.

## 2. Dimentsio eraldatzaileak

Diagnostiko-fasean identifikatutako erronkei erantzuteko sortu da Debabarrenean gauzatu beharreko estrategia. Fase horretan, zenbait elementu kritiko eta indar-ideia definitu dira eskualdea garatzeko, eta, hala, Euskadiko 4. metropoli-gunea izan dadin lortzea da, estrategia horren helburu nagusia.

### Debabarrena, industria- eta ezagutza-ekosistema

### Debabarrena, hiri-birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua

### DEBABARRENA, Euskadiko 4. metropoli-gunea

### Debabarrena, eredu ekonomiko jasangarria

### Debabarrena, lurralde kohesionatu eta inklusiboa

## Debabarrena, industria- eta -ezagutza ekosistema

- Eskualdearen industria izaera. BPTD
- Enpresa-egitura sendoa eta kohesionatua
- Espiritu ekintzailea eta enpresa-jarduera berritzailea sortzeko motorra
- Berrikuntzarako eta ezagutza eta ETE txikiak sortzeko ekosistema
- Ekosistema lagungarria industria-sarean
- Talentuarentzako gune erakargarriak (sorkuntza, erakarpena eta atxikitzea)
- Enpresa-sarea eta prestakuntza/ezagutza elkarrengana hurbiltzea
- Enpresa- eta eskualde-digitalizazioa

## Debabarrena, hiri-birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua

- Hiri- eta bizitegi-ingurunearen berriztatze jasangarria eta integratua
- Hiri kalitatea eta hiri atseginak
- Eraikitako parkearen birgaitze osoa (eraginkortasun energetikoa)
- Berdeguneak eta azpiegiturak eta mugikortasun iraunkorra
- Konektibitatea eta garraio publikoko zerbitzuak
- Baliabide naturalen birsorkuntza (Deba ibaiaren ardatz nagusia)



## Debabarrena, eredu ekonomiko jasangarria

- Eraldaketa energetikorako estrategia
- Energia-eredua (energia lehiakortasun-faktore gisa)
- Jasangarritasun ekonomikoa
- Erabiltzen ez diren eraikinak eta lurzoru industriala (lurzoru kutsatuak) eta azpiegiturak (jasangarritasuna eta eraginkortasun energetikoa) birsortu eta balioa eman
- Eraginkortasun energetikoa sustatzeko enpresa-aliantzak
- Inbertsio publiko-pribatuen erakarpena
- Eskualde turismo jasangarria

## Debabarrena, lurralde kohesionatu eta inklusiboa

- Eskualde-nortasun partekatua
- Gizarteratzea eta inklusio soziala (gizatalde zaugarrienei arreta)
- Garapen komunitarioa eta soziala (zerbitzuak eta oinarrizko eskubideak eskuratzea)
- Biztanleriaren zahartzea
- Kalitatezko enplegua, talentuaren sorkuntza, erakarpena eta atxikitzea
- Aukera berdintasuna sustatzea
- Tokiko ekonomia berreskuratzea eta lehen sektorea bultzatzea
- Debabarreneko Gizarteratze Sarea

# 3. Dimentsio eraldatzaileen deskribapenak

## 3.1 Debabarrena, industria- eta -ezagutza ekosistema

- Debabarrenak eskualdearen **industria-izaera indartzearen alde egin behar du**, enpresa-egitura sendo eta kohesionatua duen industria-ingurune erakargarri bat sustatuz, eskualdeko gaitasunei balioa emango diena (adibidez, ekosistema lagungarria industria-sarearentzat); enpresen arteko lankidetza eta aliantzak bultzatzen ditu, proiektu berriei ekiteko behar den masa kritikoa sortzen du, eta lehendik dauden enpresen jarduerari eusten laguntzen du.

- Era berean, Debabarrenak **eskualdeko espiritu ekintzailea berreskuratzeko** lan egin behar du. Horretarako, enpresa-jarduera berria sortzen lagundu behar du, osagai berritzaile batekin, inguruko aukerak eta jarduera-hobi berriak aprobetxatuz, eta **berrikuntzaren eta ezagutza eta ETE txikiak sortzeko ekosistema bat sustatuz.**

- Beharrezkoa da **talentuarentzat erakargarriak diren guneak sortzen aurrera egitea**, eta, aldi berean, enpresa- eta prestakuntza-ehunaren arteko hurbiltasuna bultzatu behar da, prestakuntza-eredu dualen bidez, esaterako. Alde horretatik, gazteek garrantzi berezia hartzen dute, eta beharrezkoa da etorkizunerako proiektu erakargarri bat sortzea, eskualdean beren bizitza pertsonala eta profesionala garatzeko baldintza egokiak dituena. Hori guztia, eta bizitzeko bizi-kalitate eta gizarte-ingurune erakargarria bermatu beharra.

- Era berean, Debabarrenak **talentua sortzea, erakartzea eta atxikitzea sustatu behar du**, eskualdeko lehiakortasunaren funtsezko elementu gisa. Ezagutza sortzen duten agenteen eta prestakuntza eta enpresa garapenari laguntzeko baliabideen ekosistema (erreferentziako zentro teknologikoak eta prestakuntza zentroak barne) baloratu egin behar da, erakarpen elementu gisa duen potentziala aprobetxatuz.

- Beharrezkotzat jotzen da **eraldaketa digitala bultzatze**a, bai enpresa mailan, bai eskualde mailan, gizarte osoaren irisgarritasuna bermatuz, enpresaren - batez ere ETEen eta mikroETEen - eta udal administrazio publikoaren digitalizazioa sustatuz.

## 3.2 Debabarrena, Debabarrena, hiri-birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua

- Debabarrenak irmo egin behar du aurrera hiri-ingurunea modu iraunkorrean eta integratuan birsortzeko. Horrela, eskualdea erakargarriagoa eta kohesionatuagoa izango da, ingurumen- eta hiri-erronka nagusiak gaindituko dituena eta herritarrak etorkizuneko proiektu bateratu batean sartuko dituena. Horretarako, eskualdeko udalerrietako eraikuntza-parkean eta hiri-espazioetan **birgaitze integraleko esku-hartzeak planifikatu beharko dira,** eremu degradatuenei lehentasuna emanez eta jasangarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren ikuspegia txertatuz. Hori guztia, Debabarreneko **udalerrien hiri-kalitatea handitu eta hobetzeko**.

- **Konektibitatea eta mugikortasuna** bereziki garrantzitsuak dira eskualderako, eta nabarmen laguntzen dute hiri-birsorkuntzan. Debabarrenak lehentasunez heldu behar dio eskualde eta udalerri mailako garraio publikoen (trena eta autobusa) konexioak eta zerbitzuak hobetzeari, eta, osagarri gisa, azpiegitura berdeak (bidegorrien sarea) indartu behar ditu, eta intermodalitatea bezalako alternatibak aztertu.

- Baliabide naturalak, oro har, eta Deba ibaia, bereziki, **eskualdearen egitura- eta lotura-ardatz gisa birsortzearen aldeko apustua egin behar da**. Horretarako, ikuspegi integral eta integratutik baloratu behar da ibaia, baliabide natural, hiri-paisaia eta aisialdirako leku gisa, eskualdeko udalerriek ibaiari “bizkarra emateari” utz diezaioten. Horrekin guztiarekin batera, ingurumen-jasangarritasuna eta eskualdeko ingurumenkalitatea hobetzeko neurriak hartu behar dira, eta oinarrizko zerbitzuetan (saneamendueta hondakinen kudeaketan) dauden arazoei aurre egitea lortu.

- **Turismoa suspertzea** eta garapen ekonomikoaren motor gisa duen potentziala aprobetxatzea beste erronka bat da Debabarrenarentzat epe ertainean. Alde horretatik, eskualdeko espazio turistikoa hobetu behar da, dauden baliabide naturalak baloratuz, ostatuko azpiegiturak egokituz eta bisitariei kalitatezko zerbitzu jasangarriak bermatuz. Hori guztia bat dator udalerri bakoitzaren ahalmenekin eta produktu anitzeko helmuga turistiko baten garapenarekin.

## 3.3 Debabarrena, eredu ekonomiko jasangarria

- Eskualdean eraginkortasun, aurrezki eta iraunkortasunean oinarritutako **energia-eraldaketa estrategia garatzeko beharra dago** (gizartea, enpresa-sektorea, garraioa, etxebizitzak, etab.).

- Halaber, **energia-eraginkortasunean eta baliabide naturalen aprobetxamenduan aurrera egin behar da**, eskualdea hobetzeko jardueren zeharkako dimentsio gisa. Ildo horretatik, energia-eraginkortasuneko neurriak bultzatu behar dira hiri-birsorkuntzan eta eraikinen birgaitzean, enpresa-jardueran, garraioan eta herritarren artean, eta energia-efizientzia lehiakortasun-elementu gisa hartzen duten proiektuen garapenean lagundu behar da.

- Jarduerak egiteko orduan, eskualdeak kontuan hartu behar du **iraunkortasun ekonomikoa**, hau da, Debabarrenak bere baliabideak administratzeko eta errentagarritasuna modu arduratsuan eta epe luzean sortzeko duen gaitasuna. Horretarako tresna eraginkorra izan daiteke inbertsio publiko-pribatuen erakarpena.

- Horrekin guztiarekin batera, **industria-azpiegiturak eta -lurzoruak birsortu eta balioztatu behar dira**, jarduera ekonomikoa garatzeko; hartara, balio erantsi handiko jarduera ekonomikoa garatzeko lurzoru eta azpiegitura lehiakorrak eskaini ahal izango dira.

- **Eraginkortasun energetikoa sustatzeko**, **enpresa-aliantzak egin beharko lirateke**, lehiakortasun-faktore eta dibertsifikazio-elementu gisa ezartzen laguntzeko, bai energiarekin batera garatzeko proiektuak bultzatuz lehiarako elementu gisa, produktua sortuz edo sektorea profesionalizatzeko neurriak gauzatuz.

# 3.4 Debabarrena, lurralde kohesionatu eta inklusiboa

- **Debabarrenak benetako eskualde-ikuspegia eta -nortasuna eraikitzea lortu behar du**, kohesioa duen lurralde gisa, eskualde bateko estrategia bateratu eta partekatu batean parte hartzen duten udalerrien aktibo diferentzialei balioa emateko. Eskualdearen sentimendua eta gizarte kohesionatu batek partekatzen dituen balioak indartu behar dira.

- Debabarrenak arreta berezia jarri behar dio eskualdearen eta, bereziki, udalerri batzuen **izaera eta bokazio landatar eta lokalari**, eta landa-garapen iraunkorreko eredu bat bultzatu behar du, tokiko ekonomian eta kontsumo-zirkuluetan oinarritua. Horrez gain, tamaina txikia duten eta lehiakortasuna eta profesionalizazio-maila hobetzeko beharra duten lehen sektoreko enpresei laguntza ematen zaie, beren jarduera sendotzeko.

- **Arazo sozialak bere dimentsioetan lantzea** erronka garrantzitsua da Debabarrenarentzat. Alde horretatik, beharrezkoa da gizarteratzeko eta laneratzeko neurriak bultzatzea, udalerri batzuetako pobrezia- eta langabezia-tasa handiari eta etorkinen errealitateari erantzuteko. Komunitatearen eta gizartearen garapena bultzatu behar da, oinarrizko zerbitzu eta eskubideetarako (gizarte-zerbitzuak, etxebizitza…) sarbidea bermatuko duen ikuspegi zabal batetik.

- Aurrekoaz gain, **kalitateko enplegua eta aukera-berdintasuna sustatuko dira eskualdean**, eta zailtasun handienak dituzten kolektiboak laneratzen lagunduko da; horretarako, laneratzeko ibilbideak sustatuko dira, profil horien kualifikazio- eta gaikuntza-mailak egokitu eta hobetzeko. Azken finean, Debabarreneko gizarteratze eta laneratzearen aldeko apustua egitea.

- Era berean, **garrantzitsua da Debabarrenak jasaten duen biztanleria-zahartzeari aurre egitea**, erreferentzia-lurraldeak baino nabarmenagoa baita, eta biztanleria-segmentu hori eta haien ingurunea garatzea lortzen baita.

## 4. Helburu eraldatzaileak

| | |
|---|---|
| 1 | Debabarrena Industria Distritua - BPTD |
| 2 | Debabarrena, eskualde ekintzaile eta berritzailea |
| 3 | Debabarrena, birgaitze eta berroneratze integrala birsortze eredua |
| 4 | Debabarrena berdez mugitzen da! Euskadiko mugikortasun iraunkorreko lehen hiriarteko sarea |
| 5 | Debabarrena Natura (Deba ibaia, lurraldearen ardatz egituratzailea) |
| 6 | Debabarrena, energia-eredu jasangarria |
| 7 | Debabarrena, sormen eskualdea |
| 8 | Debabarrena, zahartze aktibo eta osasungarria |
| 9 | “4. metropoli espazioa” marka eraikuntza |
| 10 | Debabarrena Talent |

# 5. Helburu eraldatzaileak Garapen Jasangarriko helburuekin (GJH) lerrokatuta

**1** Debabarrena Industria Distritua - BPTD






**2** Debabarrena, Barruti ekintzaile eta berritzailea








**3** Debabarrena, birgaitze eta berroneratze integrala birsortze eredua








**4** Debabarrena berdez mugitzen da! Euskadiko mugikortasun iraunkorreko lehen hiriarteko sarea






**5** Debabarrena Natura (Deba ibaia, lurraldearen ardatz egituratzailea)



## 6 Debabarrena, energia-eredu jasangarria




## 7 Debabarrena, sormen eskualdea




## 8 Debabarrena, zahartze aktibo eta osasungarria










## 9 “4º Metropoli espazioa” marka eraikuntza




## 10 Debabarrena Talent









# 2. Debabarrena Eraldatzeko Plana 2030

# HE[1]1 Debabarrena industria distritua- Basque Precision Technology District

| **Dimentsioa: Debabarrena, industria- eta -ezagutza ekosistema**

Proiektu honen helburua da enpresa-ekosistemako eragileak mobilizatzea, ahaleginak bateratzeko eta nazioarteko proiekzioa duen fabrikazio aurreratuko enpresa-proiektu estrategiko handi bat erakartzeko, eta/edo bere ezagutza-eremuan aitzindari den erakunde zientifiko-teknologiko batekin lankidetzan aritzeko, proiektu handi bat garatzeko. Horretarako, aldez aurretik aztertu beharko lirateke eskualdeko indarguneak eta gaitasunak (azpiegiturak, konektibitatea, lurzoru industriala, etab.). Proiektu hori egungo egoerara nola egokitzen den ikusteko, prospektiba-lan bat egiteaz gain, aukera posibleak identifikatzeko, identifikatutako aukera-eremuetako balio-kateak aztertuz. Proiektu hau lankidetza publiko eta pribatuaren esparruan garatuko da (BPTD Elkartea, AFFD, EJ). **Fabrikazio aurreratua eta industria 4.0 eta IOT teknologia gaitzaileak dira aukerako sektoreak.**

Horrekin guztiarekin, Debabarrenak ekoizpen-inbertsio handia egingo du, eskualde hori **nazioarteko industria-eremuan posizionatzeko balioko duen**a, eta, gainera, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta ekonomia-jarduera berria sortzeko pizgarri izango dena.

Lehenetsitako esparruak bizkortzeko, **funtsezkoa da azpiegitura espezializatuak abian jartzea**. Eremu honetan, garapen-bektore argi batzuk fabrikazio bateratuaren eremuarekin lotutakoak dira -IMH Campus-ekin lotutako zentroa eta industria gaitzen duten teknologiekin lotutako zerbitzu aurreratuen sektorea 4.0-IOT estrategia eta zuntzaren hedapena. Proiektu horiek eskualdeko industria indarren arabera garatuko dira.

Egin beharreko jarduerak Debabarreneko Industria Lehiakortasunerako Planean (2022-2026) gauzatuko dira.

---

[1] HE: Helburu estrategikoa

# LE [2] 1.1 Eskualdeko eta enpresetako lehiakortasuna sustatzea

| | |
|---|---|
| 1.1.1 | Industria **Lehiakortasuneko Planaren ibilbide-orria martxan jartzea** |
| 1.1.2 | **Estrategia Eskola** abian jartzea (gazteen eta profesionalen gaikuntzari lotuta). |
| 1.1.3 | **BPTD sarea sendotzea** – Fabrikazio eta prestakuntza gaitasunak. |
| 1.1.4 | **Eskualdeko enpresa industrialei belaunaldi-erreleboko** prozesuetarako laguntza eskaintzea, **BPTD enpresa-elkartea** sendotzea eta enpresa arteko lankidetza, **enpresa txikiei arreta berezia eskainiz**, proiektu berriei lehiaz ekiteko adinako masa kritikoa sortzeko. |
| 1.1.5 | Enpresak birkokatzeko joera aurreikusi eta haren aprobetxamendua erraztuko duten ekintza espezifikoak definitzea, Debabarrena **“industria-hiriburu”** gisa kokatzeko. |

# LE 1.2 Industria-sektorearen digitalizazioa

| | |
|---|---|
| 1.2.1 | **Industria-sektorearen eraldaketa digitalari** laguntzeko programa diseinatzea eta abian jartzea. |
| 1.2.2 | **Zerbitzu-sektorearen eraldaketa digitalerako** laguntza-programa bat diseinatzea eta abiaraztea (besteak beste, txikizkako merkataritza), merkataritza-federazioarekin, merkatarien elkartearekin eta abarrekin lankidetzan. |

[2] LE: Lerro estrategikoa

## LE 1.3 Industria-sektorearen trantsizio ekologikoan laguntzea

| | |
|---|---|
| 1.3.1 | Debabarreneko **Ekonomia Zirkularraren Agenda** hedatzea: **Negozio-ikuspegiari lotutako puntuak identifikatzea, eta proiektu horiek elkarlanean diseinatu eta gauzatu ditzaketen enpresa eta erakundeen arteko lantaldeak eratzea.** |

## LE 1.4 Enpresak aukera-sektoreetara erakartzeko estrategia

| | |
|---|---|
| 1.4.1 | Bere jakintza esparruan aitzindari den **erakunde zientifiko-teknologiko batekin lankidetzan proiektu bat garatzea** eskualdean proiektu handi bat garatzeko. |
| 1.4.2 | Nazioarteko proiekzioa duen **fabrikazio aurreratuko enpresa-proiektu estrategikoa lortzea**, enpresa-ekosistemako eragileen arteko lankidetzatik abiatuta. |
| 1.4.3 | **Zerbitzu aurreratuetako enpresak erakartzeko plana zehaztea**, 4.0-IOT Estrategia eta zuntzaren hedapena gaitzen dituzten teknologiekin lotutakoak, egungo azpiegitura espezializatuen potentziala aprobetxatuz, zehazki Ermuko IOT laborategia, IMH Campuseko fabrikazio aurreratuko zentroa. Gainera, eskualdeko gainontzeko ezagutzara bideratutako azpiegiturarekin, FP zentroekin eta unibertsitateekin lan egingo da. |
| 1.4.4 | **Akuikulturako gunea diseinatu eta garatu**, nekazaritzako elikagaien industriaren arloko berrikuntzarekin eta negozio aukerekin lotuta. |
| 1.4.5 | Eskualdeko industria sarearen potentziala ezagutzera eman komunikazio ekintza zehatzekin. |

## LE 1.5 Inbertsio “adimendunak” erakartzeko eta garatzeko plana

| | |
|---|---|
| 1.5.1 | Industria-sareari laguntzeko aktibo, gaitasun eta baliabideen **mapa analitikoa egin eta definitzea,** eskualdearen ikuspegitik eta lankidetza publiko eta pribatuak bultzatuta. |
| 1.5.2 | Debabarrenean **enpresa-inbertsio “adimendunak”** (jakintza eta berrikuntza sortzea) lortzeko **estrategia zehaztea** (izaera publikoa eta pribatua), Debabarrenean ezartzeko ahalmena duten **enpresak identifikatuz** (BPTD estrategiarekin lotuta) BPTD elkartearekin batera. |
| 1.5.3 | Berariazko proiektua: **Elgoibarko fabrikazio aurreratuko guneari laguntza** (IMH). |

## LE 1.6 Lurzoruaren eta azpiegituren eskaintza hobetzea jarduera ekonomikorako

| | |
|---|---|
| 1.6.1 | Zeharkako **jarduerak**[3]:<br>• Industria-inbertsioak erakartzeko plana egitea eta garatzea.<br>• Ekintza bitartez jarduera ekonomiko estrategikoko lurzoru/partzelen eskaintza handitzea, berehala okupatzeko.<br>• Industria lurzoruaren erabileren kudeaketa berrikustea eta eskualdeko lurzorua garatu eta kudeatzeko plana definitzea.<br>• Poluituta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketa.<br>• Digitalizazioari laguntzeko azpiegiturak sustatzea: FTTH zuntz sareari balioa ematea 5G-ren bidez. |
| 1.6.2 | **Udal jarduerak**[4]:<br>• Arriaga industrialdeko (Elgoibar) sarbidea (sarrera eta irteera) hobetzea.<br>• Bihurguneen trazadura hobetzea Azitaingo industrialdean (Eibar). |

[3] **Zeharkako jarduerak:** eskualdean modu orokor eta koordinatu baten aurrera eraman beharko diren ekintzak.

[4] **Udal jarduerak**: eskualdean eragiteko aukera duten ekintzak, baina udal jakinek aurrera eraman behar dituztenak.

- Itziarko Enpresa Parkeari balioa ematea eta sarbidea hobetzea (Deba-Itziar).
- Sigma inguruari balioa ematea (Elgoibar).
- Soraluzen jarduera ekonomikoa sortzeko erabilgarri dauden espazioak aktibatzeko plana egitea/garatzea.
- Mendaroko industrialdera eta etxebizitzetara sartzeko bigarren zubia egitea eta lurzoru industrial berria kalifikatzea.
- Mijoa industrialdeari balioa ematea, aukera eremuetan jarduera ekonomikoa sortzeko elementu gisa (Mutriku).
- Urtia eta Goitondo industrialdeetarako sarbidea hobetzea. Ermuako saihesbidearen bigarren fasea.
- Uretako lurzoru industrialaren garapena

# HE2 Debabarrena, Barruti ekintzaile eta berritzailea

| Dimentsioa: **Industria- eta ezagutza-ekosistema - Hiri-birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua**

Hub BPTD ekimena garatzea (Debabarreneko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartua), eskualdean enpresa-jarduera berria sortzeko eta eskualdeko espiritu ekintzailea berreskuratzeko. Horretarako, industria-arloan jarduera-hobi berriak sustatzen dituzten ekintzaileei laguntzeko berariazko ekintzak garatuko dira.

Horretarako, industria-, ezagutza- eta ekimen-ekosistemaren parte-hartzea aurreikusten da, eta proiektu zehatzak definitzen dira, lankidetza, berrikuntza, digitalizazioa, talentua eta industria-lehiakortasuna barne hartzen dituztenak, bai eta berrikuntzari eta ekintzailetzari laguntzeko azpiegiturekin lotutako eskualdeko sareak eta sinergiak sortzen dituztenak ere, lehendik daudenak zein berriak.

Bi garapen-ildo bereizten ditugu: fisikoa (industria-erabilera zaharreko eraikin bat birsortzeari lotua) eta birtuala (“metaverso” motako gune birtual bat konfiguratuz ezar daitezke sare eta lankidetza horiek; bertan, industria-enpresak eta enpresa osagarriak, azpiegiturak, ezagutzaren eragileak eta ekimenak agertzen dira, eta Industria Parke Birtual handia eratzen da).

Gune horrek enpresen arteko elkarreragina eta ekimen bateratuen esperimentazioa erraztuko ditu, eta berariazko zati bat izango du ekintzailetzarako (BPTD LAB – Elkarlaneko Laborategiak edo BPTD Seed – Inkubazioko Espazioak gisa aurreikusitako sareak eta BPTD ekimen-programa barne hartuta; horrez gain, sare berrien garapena sustatuko du). Gainera, ekonomia dibertsifikazioari lotuta, garapen ekonomiko jasangarria sustatuko da, lehenengo sektorekoa esate baterako.

## LE 2.1 Hub BPTD

| | |
|---|---|
| 2.1.1 | **Estrategia koordinatua garatzea** ekintzailetzako espazioak eta azpiegiturak kokatu eta kudeatzeko, Udalaren laguntzarekin. |
| 2.1.2 | **Hub BPTD diseinatzea eta haren edukia konfiguratzea**: BPTD elkartea, diseinu indu strialari lotutako gunea (ICCrekin lotua), enpresentzako erakustokia,sendotze fasean dauden enpresentzako gunea, digitalizazioarekin eta berrikuntzarekin lotutako prestakuntzarako gunea (besteak beste, Digital Academy), berariazko azpiegiturak behar dituzten proiektuetarako inkubagailuak martxan jartzea (laborategiak, instalazioak eta berariazko ekipamendua). |
| 2.1.3 | HUB BPTD hartzen duen **eraikin bat birsortzea eta hari balioa ematea** (3.2 atalean garatua). |
| 2.1.4 | **Erronka-programa bat diseinatu eta abian jartzea**, eskualde osora zabaldua, enpresen arteko lankidetzaren bidez irtenbide teknologikoak sortzeko. |
| 2.1.5 | **Foro digital bat garatzea ekosistemako eragile guztien topaleku gisa**, eta industria parke handi bat sortzen eta lankidetza-proiektuetan elkarrekin identifikatzen eta jarduten laguntzea/sustatzea. |

## LE 2.2 BPTD industria-ekintzailetzako programa

| | |
|---|---|
| 2.2.1 | Debabarreneko **ekintzailetza-estrategia** eta haren Ekintza Plana diseinatu eta hedatzea. |
| 2.2.2 | **“Make IN!”** azelerazio industrialeko programa finkatzea (bekak eta laguntza ematea enpresek beren intereseko teknologiak erabil ditzaten). |
| 2.2.3 | Eskualde mailan, **pertsona ekintzaileentzako trebakuntza-eskaintza** bat zabaltzea. |

| | |
|---|---|
| 2.2.4 | Debabarreneko enpresak erakartzeko eta sustraitzeko laguntza-programa bat eratzea, ekintzailetzara eta barne-ekintzailetzara bideratuta. |
| 2.2.5 | Trebakuntza-programa bat abiaraztea, enpresek barne-ekintzailetzako proiektuak garatu ahal izateko. Gainera, proiektu horiek garatzeko kontratazioari laguntzeko ildo bat ere badu. |
| 2.2.6 | BPTD inbertsio-fondoa sortzea enpresa-proiektuak finantzatzeko laguntza gisa. |

## LE 2.3 Ekintzailetza-eta berrikuntza-guneak

| | |
|---|---|
| 2.3.1 | **Eskualdeko sareak sortzea** (berariazko kudeaketa- eta estrategia-ereduarekin), egungo berrikuntzari eta ekintzailetzari laguntzeko azpiegiturekin lotuta. |
| 2.3.2 | Enpresak **inkubatzeko eta finkatzeko gune berriak sortzea** (Hub BPTDrekin lotuta). |
| 2.3.3 | **Jarduera ekonomikoa erakartzeko dauden ekintzailetza-espazioak eta -azpiegiturak aktibatzea** eta sustatzea (Izarra Centre gunea, Debegesako inkubagailua, Eibargunea enpresa-inkubagailua, Tekniker inkubagailu teknologikoa). |

## LE 2.4 Lehen sektorea suspertzeko programa

| | |
|---|---|
| 2.4.1 | Sektorearen egoerari **buruzko hausnarketa eta diagnostikoa egitea,** Debemenekin lankidetzan. |
| 2.4.2 | **Landa ingurunea eta nekazaritza inguruneko zerbitzu ekosistemikoak babestea**, berariazko laguntza ekintzen bidez. |

| | |
|---|---|
| 2.4.3 | **Lehenengo sektoreko jarduera ekonomikoari eusteko laguntza ematea**, tokiko ekonomia eta kontsumoa baloratuz, eta lehenengo sektorean jarduera ekonomiko berria sortzea sustatzea, errelebo-ekimenak eta ekimena sustatzeko ekimenak bultzatuz. |
| 2.4.4 | Lehen **sektoreko enpresak hobetzeko eta profesionalizatzeko jarduerak bultzatzea** (digitalizazioa, prestakuntza, etab.) |

# HE3 Debabarrena, birgaitze eta berroneratze integrala birsortze eredua

| **Dimentsioak: Industria-eta ezagutza-ekosistema - Hiri birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua**

Proiektu honen bidez, eskualdeko hiri eta bizitegi ingurunearen kalitatea hobetu nahi da, eta, horretarako, hiriaren birgaitzea eta leheneratzea bultzatu nahi da, ikuspegi jasangarri eta esparru guztietan integratuta (auzoak, etxebizitzak, hiriko berdeguneak, azpiegiturak eta ekipamenduak, etab.), eta Debabarreneko hiri- eta gizarte -habitata duindu. Hori guztia, eskualdea erakargarriagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, ingurumen - eta hiri -erronka nagusiak gainditu eta herritarrak etorkizuneko proiektu bateratu batean sar daitezen. Horretarako, hiri-birgaitze eta -birsorkuntzako jarduerak sustatuko dituen lan -ildo handi bat planteatzen da, ahal den neurrian tokiko baliabideak erabiliz eta sustatuz, bai eta industria - erabilera zaharreko eraikinen birgaitze eredugarrirako ekimen pilotuak garatzea ere, besteak beste, prestakuntza-zentro bat abian jartzea gauzatzeko.

1. Debabarreneko (baita bertako baliabide turistikoentzako, naturalentzako, hiritarrentzako, sozialentzako…) **hiri-birgaitze eta -leheneratze jasangarria eta integratua bultzatzen duten jarduerak egitea**, Debabarreneko udalerrien hiri-kalitatea handitzeko eta hobetzeko.

2. **Industria-erabilera zaharreko eta hiri-inguruneko eraikinen birgaitze eredugarrirako ekimen pilotuak garatzea**, etxebizitza eta erabilera mistoetarako, garapen ekonomikorako eta prestakuntzarako.

3. Prestakuntzaren ikuspuntutik**, aurreko lan ildoen eskakizunetara egokitutako kalitateko prestakuntza maila beharko da**. Horretarako, eraikuntza-/errehabilitazio-prestakuntzako zentro bat jarri nahi da martxan, eraikuntzaren eta birgaitzearen arloan prestakuntza dualeko eredu bat garatuz, langabezian dauden edo lan bila dabiltzan **biztanleak kualifikatzeko eta lan-aukera bat eskaintzeko.**

Proiektu honekin batera **komunikazio ekintza bat aurkeztuko da**, eskualdearen eraldaketa ikusarazten lagunduko duena, hiri birsorkuntza eta eraldaketa jasangarrian arrakasta eta praktika onak izan dituen kasu gisa. Horretarako, eraldaketa horren osagaiak eta faseak azalduko dituzten artikuluak prestatzea aurreikusten da, eta, ondoren, prestigioko rankingetan, Foroetan edo argitalpen espezializatuetan eta erreferentziakoetan argitaratzea.

## LE 3.1 Debabarreneko hiri-birgaitze iraunkor eta integraturantz

| | |
|---|---|
| 3.1.1 | **Zeharkako** jarduerak:<br>• Eraikinen birgaitze integralerako programa egitea eta ezartzea.<br>• Hiri-paisaia hobetzeko eta birgaitze jasangarria lortzeko jarduerak garatzea, aisialdirako eta sakabanaketarako guneak sortzea sustatuz.<br>• Udalerrien birgaitze integrala bultzatzea, esku hartzeko lehentasunen plana ezarriz, auzo ahulenei eta behartsuenei arreta berezia eskainiz Opengela auzo-bulego ereduaren bitartez.<br>• Hiri-birgaitze eta -leheneratze jasangarria sustatzea, Debabarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkarte eta Eusko Jaurlaritzaren bulego gisa, laguntzen eta diru-laguntzen berri emanez eta izapideak egiten lagunduz. |
| 3.1.2 | **Udal** jarduerak:<br>• Soraluzeko hiri-birsorkuntzarako talka-plana egitea/ezartzea. |

## LE 3.2 Industria-erabilera zaharreko eraikinen birgaitze eredugarrirako ekimen pilotua

| | |
|---|---|
| 3.2.1 | **Zeharkako** jarduerak:<br>• Industria-erabilera zaharreko eraikinak eta hiri-ingurunekoak zaharberritzea, etxebizitzarako edota erabilera mistoetarako, garapen ekonomikorako eta eskualdeko proiektu estrategikoen araberako prestakuntzarako: Hub BPTD, Prestakuntza/errehabilitazio zentroa, etxebizitza, KSIak, etab. |
| 3.2.2 | **Udal** jarduerak**:**<br>• Hiri eremuetako leheneratzea lehenestea eta antolatzea. |

## LE 3.3 Eraikuntza/birgaitze iraunkorreko prestakuntza-zentro dual berria

| | |
|---|---|
| 3.3.1 | Eraikuntza/birgaitze iraunkorreko prestakuntza-zentro bat abian jartzea, eraikuntzaren eta birgaitzearen arloan prestakuntza dualeko eredu bat garatuz, langabetuak kualifikatzeko. |

## LE 3.4 Turismo sektorea sustatzea, erakargarritasuna sustatzen duten jarduerak eta zerbitzuak garatuz.

| | |
|---|---|
| 3.4.1 | Eskualdeko **baliabide turistikoei balioa ematea**, batik bat Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkeari, eta produktu turistikoen eskaintzaren garapena. |
| 3.4.2 | **Ostatuko azpiegiturak, eskura dagoen edukiera eta zerbitzu turistikoak berrik usi eta egokitzea**, bisitarientzako eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa izan dadin. |
| 3.4.3 | Ingurunea errespetatzen duen **turismo jasangarria sustatzen duten jarduerak g aratzea**. |
| 3.4.4 | Eskualdeko **turismoaren komunikaziorako eta kokapenerako estrategia definit zea.** |

# HE4 Debabarrena berdez mugitzen da! Euskadiko mugikortasun iraunkorreko lehen hiriarteko sarea

| Dimentsioak: **Hiri-birsorkuntzaren eta -kalitatearen eredua - Eredu ekonomiko jasangarria**

**Mugikortasun iraunkorreko eredu bat sortzea**, intermodalitatean, azpiegitura berdeetan eta herritarren beharrei erantzungo dieten garraio publikoko zerbitzuen bermean oinarritua. Trenbideak funtsezko zeregina izango du eskualdeko eta eskualde arteko mugikortasunean, eta hiri-tranbia metropolitar bat (aipatutako hiru eskualdeak) eratzeko bidean aurrera egingo du. Tranbia hori Euskotrenen egungo saretik abiatuta eratuko da.

Eredu horrek behin betiko bultzatuko ditu **hiri-metropoliko tranbiaren proiektua** (Ermua-Deba), hiri-barruko eta hiriarteko bidegorrien sarea indartzea (Soraluze) eta inguruko eskualdeekin (Debagoiena, Durangaldea eta Lea-Artibai), mugikortasun iraunkorreko hiriarteko sarea eratuz. Horrekin guztiarekin batera, **zerbitzu publikoak eta tren eta autobus bidezko konexioak** hobetu dira.

